

AITONA ETA MATTIN

Aitonak kondaira asko kontatzen zituen .

Egun batean Mattin ikastolatik bueltan aitonari bisita egitera joan zen.

-Rin rin.- Entzun zuen txirrina aitonak.

-Kaixo aitona! zer kondaira kontatuko didazu gaurkoan???

-Gaurkoan ez dizut inolako kondairarik kontatuko, nire osabari gertatutako istorioa kontatuko dizut.

Mattin adi- adi jarri zen aitonak kontatuko zion istorio hori entzuten.

-Nire osaba astronauta zen, eta asko maite zuen bere aitona. Egun batean espazioko buelta egina zela etxera deitu zioten.

-Riiiiing riiiiing.

-Bai, nor da???

-Kaixo ospitaletik deitzen dizugu, zure aitona hil dela abisatzeko.

-Kank.

Zuzenean telefonoa eskegi zuen.

-Hau zoritxarra espazioan hiru hilabete pasa eta nire aitona maitea hil zait.

Mattinek zuzenean erantzun zion aitonari:

-Andereñoak esan zigun espazioan polikiago pasatzen zela denbora.

-Halaxe da Mattin.-erantzun zion aitonak..

-Zer iruditu zaizu nire osabari gertatutako istoriooa???

-Izugarria izan da.-esan zion Mattinek.-Badakizu zer aitona handitzen naizenean astronauta izango naiz.

Urteak pasa ahala Mattin handitzen eta aitona zahartzen ari ziren,eta Mattin jada bere etxean bizi zen.

-Riiiiing Riiiiing.-jo zuen telefonoak.

-Bai nor da???

-Kaixo Nasatik deitzen dizugu espaziora bidaiatzeko aukera duzu .

-Aupa!!!

-Bihar bertan etorri zaitez.Lauetan abiatuko zara.

-Ongi bihar arte

-Bai, agur!!!

Hasieran izugarrizko poza hartu zuen.

-O ez!! eta aitona! zer egingo dut orain??? badakit aitonari kontatuko diot ea zer iruditzen zaion.

Eta korrika joan zen aitonaren etxera.

-Aitona badakizu zer! Nasatik deitu didate, baina zer egingo duzu hiru hilabete ni gabe?

-Lasai egongo naiz hiru hilabete zu gabe. Baina zu ateratzen ikustera joan nahi dut.

-Oso ongi.

Eta hurrengo egunean hor joan ziren aitona elegante jantzita. Eta iritsi zirenean jaurtiketa aireratzeko arrapalara aitona harrituta gelditu zen. Ez zuten sekula pentsatuko horrelako lekua izango zenik. Aitona etxe moduko batera eraman zuten eta Mattin berriz espazioko arropa janztera joan zen.

-Beno aitona, banoa ondo pasa hiru hilabeteak eta txintxo ibili.

-Zu ere txintxo ibili eta ondo pasa.

Baina Mattin ez zen gogoratzen txikia, zela aitonak kontatu zionaz.

-Agur aitona agur.

Hilabeteak pasa ahala.....

Aitonarentzat hilabete bat bi urte zen, orduan, sei urte pasa ziren eta Mattin ez zen azaltzen. Hurrengo egunean.....

- Ring ring..... txirrina jo zuten.

Aitona atea irekitzera joan eta Mattin zen.

- Mattin bazen garaia!! Hiru hilabete ez dira pasa, sei urte baizik.

- Bueno aitona, ongi zaude, eta hori da garrantzitsuena.

Eta Mattinek ez zuen gehiago espaziora bidaiatu. Etxean gelditzen zen bere aitona zaintzen, eta oso pozik bizi izan ziren.

Mattin